



FRANCE 98

Bihar, heroia edo bilaua

Zagallok jokalaria gisa bi Mundial irabazi zituen Brasilekin, eta hautatzaile modura hirugarrena lor dezake

«Enekoitz Esnaola»

BA al dago munduan ezbaian ez dagoen hautatzailearik? Ez dirudi, Mario Zagallo brasildarra bera ere halaxe dagoelako, ezbaian. 1958ko eta 1962ko Mundialetan aurrelari ezker bezala titulua irabazi zuen Brasilekin (aurrean boskote bikaina osatu zuen Garrincha, Didi, Vava eta Pelerekin), eta lehen hautatzaile gisa 1970ean Mexikon Mundiala irabazi zuen Brasilekin, eta orain dela lau urte ere txapelkun izan zen Carlos Alberto Parreira brasildar selekzionatzailearen laguntzaile bezala. Alferrik, hala ere. Brasil aldean kontrario gogorrrak dauzka Zagallok, eta Frantziako Munduko Txapelketa hasi aurretik, batik bat Sao Pauloko komunikabideek haren aurka gogor egin eta kargutik kentzeko eskatu zuten. Baita Zagalloren ordezkoa aipatu ere: Vanderlei Luxemburgo. Izugarria da Brasilen hautatzaile eta jokalariek daukaten presioa. Parreirak ezin izan zuen jasan: «Saria eta zigorra da Brasil zuzentzea. Gizatasunetik ez du ezer selekzionatzailearekin egiten denak. Zerbait irabazten bada, guztiak irabazten dute. Baina galduz gero, batek baino ez du galtzen: hautatzaileak. Ez da normala presio hori. Ezohikoa behar duzu hori jasateko».

Bada, nonbait, ezohiko gizona da Zagallo: 63 urte zituela Parreiraren lekua hartu zuen 1994an, eta ondo jasaten du presioa; gainera, berak edozeini egiten dio aurre. «Brasil aldean kontra daude guztiak, eta garbi dago ahal duten guztia egingo dutela Brasil bosgarren aldiz munduko txapelkun ez izateko», esan zuen joan den abenduan. Brasilgo Federazioa Zagallori buruzko kritikak entzun eta entzun ari zenean, neurri bat hartu zuen: Zico jarri zuen *seleçao*-ko koordinatzaile tekniko. Zicok, gainera, esan zuen bere kargua hautatzailearena baino garrantzitsuagoa dela, eta horrek sutan jarri zuen Zagallo: «Afusilatu egin nahi naute. Baina jakin dezatela hemen nik agintzen dudala».

© «1958tik liburu irekia naiz»

Kritikak kritika, futbolaz asko jakin behar du Zagallok. Batez ere Mundialaz jakin behar du izugarri, 1950ean Brasilen bertan jokatu baitzuen selekzioarekin munduko bere lehen finala. Eta min ematen dio besteak bere lanaz gaizki esaka aritzeak. Esaterako, aste honetan bertan, Guus Hiddink hautatzaile holandarrak Brasilek orden handirik gabe jokatzeko duela esan zuene-



Mario Zagallo hautatzaile brasildarra agindu batzuk ematen bere jokalariei, aste honetako entrenamendu batean.

Parisko larrialdia

● Ez dirudi jarraitzaile frantziarrek gustuko gizona dutenik Zagallo. Izan ere, Frantziak Paraguariekin jokatu zuenean, Laurent Blancék urrezko gola egin eta gero, jarraitzaileak *Champs Elysées*-etara joan ziren, ohi bezala, eta haiek han zeudenean Zagalloarekin

egin zuten topo. Autoan zihoan hautatzaile brasildarra eta FIFAreko egoitzan sarrerak lortzea zen haren asmoa. Jarraitzaileek Zagallo ezagutu eta autoa astintzen hasi ziren. Poliziak hurbildu behar izan zuen azkeneko. «Beldurra pasatu nuen, jende asko ari zelako au-

toko beirak jotzen».

Asteazkenean ere izan zuen arazorik jarraitzaile frantziarrek. Zaleak Brasil kontzentratuta dagoen hotelera joan ziren gauez enbarazu egitera. Zagallok goizeko ordubetan kanpora irten behar izan zuen jarraitzaileei handik joateko esatera.

Frantziako zaleekin beste zita bat du bihar Zagallok. «Zeinen ondo! Brasil-Frantzia finala... eta Parisen!».

«Afusilatu egin nahi naute. Baina hemen nik agintzen dut», esan zuen behin Zagallok, aurkariei aurre eginez

an, Zagallok azkar ihardetsi zion: «Futboleko ikasgaiak ematera etorri behar al zait Hiddink? Kontuan har dezala liburu ireki bat naizela 1958tik. Urte hartan hasi nintzen gero entrenatzaile izateko prestatzen». 40 urte igaro dira. Astia eta aukera izan du asko ikasteko. Eta beti buruan du Brasilek Brasil bezala jokatu behar duela, jokalarien talentua oso garrantzitsua dela, «baina taldeak oreka behar du, eta era-

soan aritzeaz gain, defenditzen ere jakin behar da». Pelek, baina, Brasilek ez duela joko estilistik botatzen, eta Zagallo asaldatu egin da hori entzutean: «Nola nahi dute nik entrenamendu taktikoak egitea, Mundialaren aurreko partiduetan jokalariek bildu eta hurrengo egunean neurketa izanda?». Zaila da Zagalloren esaldi hori ulertzea, azkeneko bi urteetan egundoko lagunarteko partidua jokatu



Mario Zagallo (argazkian behean eskuin-eskuinean), 1962an Brasilek Mundialeko finala jokatu zuenean.

dituelako Brasilek, eta 100 jokalaria pasatxo erabiltzeko beta izan duelako. Nike kirol etxeak badu zerikusia hor, 20.000 milioi pezetan jarri baititu Brasilgo selekzioan (800 milioi libera), eta Brasil, nolabait, haren menpe egon da, Nike-ri asko interesatzen zaiolako Zagalloren askotan eta lekuri ezohikoenean jokatzeko (Saudi Arabian, Hego Afrikan...).

© Futbolaren inguruaren kontrola

Baina ikasi, Zagallok ez du soilik futbolaz, jokoaz ikasi. Futbolaren ingurua nola kontrolatu ere ikasi du antza, diziplina zorrotza ezarri du eta Mundialean bere selekzioan: jokalariek ezin dute hoteletik

irten bere baimenik gabe, jokalariek errespetatu egin behar dute ordutegia... Eta horrek ere emaitza ona eman dio, beste selekzio ugari bezala, Brasilen ez baita liskarrik izan.

Bihar ere han ariko da zelaiaren alboan aginduak ematen, txandala jantzita. Eta baliteke azkeneko aldiz aritzea horrela, selekzioa utziko baitu seguruenik. Gero Barra Tijucan daukan etxe dotorera erretiratuko da, ez du gehiago entrenatzailearen txandalik jantziko —markako arropa gustatzen zaio— eta kritikak egin ordez, mitoa edo heroia dela esango diote brasildarrek, baldin eta Brasilek finala irabazten badu. Bestela bilaua izango da.

HAUTATZAILE TXAPELDUNAK

Urtea	Tokia
1930	Uruguai Alberto Supicci (Uruguai)
1934	Italia Vittorio Pozo (Italia)
1938	Frantzia Vittorio Pozo (Italia)
1950	Brasil Juan Lopez (Uruguai)
1954	Suitza Sepp Herberger (Alemania)
1958	Suedia Vicente Feola (Brasil)
1962	Txile Aymore Moreira (Brasil)
1966	Ingalaterra Alfred Ramsey (Ingalaterra)
1970	Mexiko Mario Zagallo (Brasil)
1974	Alemania Helmut Schoen (Alemania)
1978	Argentina Cesar Menotti (Argentina)
1982	Espainia Enzo Bearzot (Italia)
1986	Mexiko Carlos Bilardo (Argentina)
1990	Italia F. Beckenbauer (Alemania)
1994	Estatu Batuak Carlos A. Parreira (Brasil)*

* Bigarren entrenatzailea: Mario Zagallo